



Haurreskolak Partzuergoko pertsonalgoaren Negoziazio Mahaia

HAURRESKOLAK PARTZUEGOKO PERTSONALGOAREN HITZARMEN KOLEKTIBOARI BURUZKO AKORDIOA

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 10a

Gaurko Negoziazio Mahaian bildutako ordezkariak hau sinatu dute, eta aipatutako bileraren aktaren eranskin gisa jaso da.

Erabakiaren oinarria:

Gaurko egunean aurreakordioa sinatu da Haurreskolak Partzuergoko pertsonalgoaren hitzarmen kolektiboari buruzkoa.

Lan hitzarmenean jaso bezala eta hau sinatzearekin batera, **ERABAKI DA** Haurreskoletan plantilak esleitzeko irizpideak negoziatzeko egutegia eta berau negoziatzeko aldagaien dokumentua sinatzea.

1.- Helburua:

Funtsezko aldagaiak kontuak hartuko dituen eta haurreskoletan giza baliabideak modu zuzen eta eraginkorrean banatuko direla bermatuko duen esparru bat ezartzea.

2.- Giza baliabideen garrantzia:

Aitortzen dugu giza baliabideek berebiziko garrantzia dutela gure haurreskoletan. Erreferentziatzko pertsonak funtsezkoak dira haurren garapenerako eta ongizaterako. Talde bakoitzak kualifikatutako haur hezitzaileak dituela ziurtatzea lehentasuna da kalitatezko hezkuntza zerbitzua eskaintzeko. Edozein kasutan ere lan hitzarmenean sinatutako haur hezitzaileen lan baldintzak aintzat hartu behar dira, batez ere 6 orduko arreta zuzena dutela, prestakuntza denbora bermatze aldera, eta dituzten lan lizentzia eta baimenak.

3.- Lan hitzarmenaren 8. artikulua oinarri hartuta, kontuan hartu beharreko aldagaiak:

- **Gela kopurua:** Haurreskola bakoitzeko gela kopurua osoa faltore erabakigarria izango da.

- **Haur kopurua:** Izena eman duten haurren guztizko kopurua baloratuko da, bakoitzari arreta egokia emango zaiola ziurtatuz.



- **Hezitzaile kopurua:** Haurreskola bakoitzeko Haur-hezitzaileen kopuru osoa faltore erabakigarria izango da.
- **Taldekatze gelak** sortzeko irizpideak zehaztuko dira.
- **Haurren egonaldi-ordutegia:** Haurren ordutegiaren iraupena hartuko da kontuan, uneoro estaldura egokia bermatzeko.
- **Premia bereziak dituzten haur kopurua:**
 - a) Behar fisiko-psikikoei lotutako arreta premia bereziak dituzten haurrak dauden kasuetan.
 - b) Egoera zaurgarrian edota indarkeria matxista ematan den testuinguruetan.
- **Koordinatzaileen dedikazio orduak eta liberazio orduak** aztertuko dira.
- **Gutxieneko ordutegia bi hezitzaileekin:** Haurreskolaren tipologiaren arabeko ordutegi bat ezarriko da, non bi hezitzailek parte hartuko duten taldearekin batera. Horrek arreta osoagoa eta eraginkorragoa bermatuko du.
- **Eraikinen ezaugarriak** kontutan edukiko dira.
- **Ordezkapenen estaldura:** Ordezkapen guztien estaldura modu egoki eta eraginkorrean bermatuko da, une oro hezkuntza zerbitzuaren kalitateari eusteko.
- **Hezitzaile gehigarriak** emateko aukera kontuan hartuko da, hezitzaileen erreferentzia gal ez dadin, eta horrela, etengabeko eta kalitatezko arreta bermatzeko. Prestakuntza eta koordinazio orduak egin ahal izateko giza baliabideak bermatuko dira.

4.- Antolaketa gaien azterketa:

Funtsezko antolaketa-gaiak aztertuko dira, hala nola lan-karga handieneko uneak, baliabideen banaketa eta egokitzeko eta uneoro kalitatezko arreta bermatzeko.

5.- Bileren egutegia:

Negoiazio hau aurrera eramateko egutegi bat adostuko da, plantilak esleitzeko erizpideak negoziatu eta adosteko 2024-2025 ikasturtea bukatu aurretik, lehenengo bilera dokumentu hau sinatu eta hurrengo hamabost egunetan izango delarik. Adostutako irizpide horiei esker, esleipen-prozesuaren etengabeko jarraipena eta hobekuntza egingo da, mahai parekidean dauden alderdi guztien parte-hartze aditiboarekin eta lankidetzarekin.



5.- Konpromisoa:

Elkarrizketa irekia eta konstruktiboa izango da sindikatuekin, haien iradokizunak eta kezkek entzungo dira, eta elkarrekin lan egingo da akordio bat lortzeko, inplikaturako alde guztiei, bereziki gure haurrekoletan konfiantza duten haur eta familiei, mesede egingo diena.

6.- Aztertzen ari diren neurriak:

Haurrekolen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko neurri gehigarriak aztertuko dira, negoziazio-prozesuan sorzen diren iradokizunak eta behar espezifikoak kontuan hartuta.

Haurrekolak Partzuergoa

Sindikatuak